

KRISIA. Batasunak Eusko Legebiltzarrera eramango du gatazka

Kaleratzerik ez egiteko exijituko dute Gamesako langileek Gasteizen gaur

Manifestazio bat abiatuko da 18:00etan Bilbo plazatik hiriguneraino



KARLOS BIGURI

Gamesa Producciones Aeronauticas-eko enpresa batzordeko kideak, artxiboko argazkian.

Erredakzioa | **GASTEIZ**

Gamesa Producciones Aeronauticas enpresako langileek Gasteizko hirigunera eramango dute gaur beren lanpostuen defentsaren aldeko aldarria, kale nagusiak zeharkatuko dituen manifestazio baten bidez. Jakina denez, Gamesa taldeak aeronautika saileko 500 langile kaleratuko dituela jakinarazi zuen, irailaren 11 ezkerotik sektoreak pairatzen duen krisialdiari aurre egiteko. Enpresa batzordeko sindikatu guztiek (ELA, LAB, UGT, CCOO eta LSB) deitu dute mobilizaziora.

Protestaldiak, ordea, dagoneko hasiak dira eta atzo 500 bat lagun Gasteizko Plaza Berrian elkarretaratu ziren, *Gure*

lanpostuen defentsan. Kaleraketarik ez lemapean. Ordubetez izan ziren Udaletxearen aurrean, eta ondoren langile batzordeko kideak Udal bilkurako ikusle izan ziren, gatazkaren inguruko mozio baten eztabaidan.

Udalbatzak aho batez onartu zuen PSE-EEK aurkeztutako testua, non Alfonso Alonso Gasteizko alkateari lanpostuak salbatzeko Arabako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren aurrean beharrezko lana egitea eskatzen zaion.

Bilerak zuzendaritzarekin eta proposamena Legebiltzarrean

Zuzendaritzarekin bi kontaktu izango dituzte langileen ordezkariak datorren astean. Lehen

bilkura astelehenean izango dute Gamesa Producciones Aeronauticas lantokiko arduradunekin, azken horiek enplegu erregulaziorako espedienteen nondik norakoak azaltzeko. Hatik, sindikatuen aburuz «itxura egiteko» bilera da, eta ez dute uste enpresaren jarrera aldatuko denik.

Beste bilera asteazkenean izango da. Langileen ordezkariak negoziazio mahaia eratzea eskatu zioten Gamesa taldeko buruzagitzari. Enpresariak kontra egon arren, behintzat bilera bat egitea onartu dute.

Bestalde, Batasunak Eusko Legebiltzarrera eramango du Gamesako lan gatazka, legez besteko proposamen baten bidez.

LABORANTZA GANBERA. Manifestazioa gaur

ELBk laborantza ganbera aldarrikatuko du gaur Baionako karriketan

E. Bidegain | **BAIONA**

Manifestazio jendetsua espero du ELBk gaur arratsaldean. Laborantza ganberaren alde mila lagunez gora elkartu nahi ditu. Jadanik erakunde andana batek bertara joateko deia zabaldu du. Atzo Segi elkartu zitzaion ELBren eskaerari.

Ibilaldia arratsaldeko 14:00etan abiatuko da Lauga gelaren aitzinetik eta San Andresko plazan bururatu, mintzaldi, musika eta animazioekin. Manifestazio denboran ordezkari bat suprefetarekin bilduko da. Laborantza ganberaren aldeko jarrera agertu duten auzapezen zerrenda emanen diote eta lehen ministroari

hitzordu eskaera helaraz diezaien galdegingo.

ELBk jurista bati ikerketa bat eginarazi zion. Ikerketa horren arabera, departamentu bakoitzean laborantza ganbera bakarra baldin bada ere, lehen ministroak dekretuz onar dezake bigarren baten sortzea.

Orain arte agertu diren jarrekin ez du iduri Gobernu horretan ari denik. Prefet Hego Euskal Herriko testuinguru politikoarekin nahasi zuen laborantza ganberaren eskaera. Nicole Pery estatu idazkari baionesak ez dela legezkoa argudiatu zuen eta, horrez gain, aldarrikapenari kutsu politikoa eman zion, departamentuaren eskaerarekin lotuz.

ENPRESAK. Euskal presentzia sendotzen

Igandetik aurrera, EAEko 54 enpresek parte hartuko dute Habanako azokan

J. Senar | **DONOSTIA**

Datorren igandean hasiko da Habanako nazioarteko azokaren laugarren edizioa eta bertan parte hartuko dute Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiako 54 enpresak, Eusko Gubernuak eta SPRI Industri Sustapen eta Birmoldaketarako Elkartek bultzatuta. Felix Iraola Gipuzkoako Ganberako zuzendari nagusiak atzo adierazi zuen geroz eta handiagoa dela euskal enpresen presentzia Karibeko uhartera, eta horren ondorioa ere azokan islatzen dela.

Esportazioak handituz doaz. Iaz 14.782 milioi pezetara esportatu ziren Kubara eta

azken hiru urteotan %31 hazi dira. Bereziki energi, oinarriko ekipamendu eta kontsumoaren sektoreak dira presentziarik handiena duten enpresak.

Iraolaren iritziz, Kuba «merkatu erakargarria» da enpresentzat, eta funtsezkoztat jo zuen SPRIren Habanako bulegoak egiten duen lana, uhartera oso garrantzitsuak baitira enpresarien eta arduradun publikoen arteko harremanak.

Euskal pabilioia astelehenean irekiko da eta 600 metro karratuko azalera izango du. Orotara 34 stand izango dira eta, 54 enpresa ordezkatzeko dituzte.

BURTSA. Aste honetan irabazien olatuak hartu dituzte balore merkatuek

1.400 helburu eraikitzen

J. B. Andueza |

Ibex-35ak 8.000koa eta Bilbao-2000k 1.400koa izango dituzte helburu datorren astean. Europako Banku Zentralak hurrengo hilabetean jaits lezake interes tasen maila eta, bitartean, mozkin sendoak eraikitzeari ekin behar zaio, begi ertzak Argentina-ara begiratu arren.


Eraikuntza enpresak izan ziren atzoko egun aspergarrian gehien nabarmendu zirenak: Dragados %8,43 igo zen eta Ferrovial %6,49. Telepizza eta TPIk %5 pasako kurrinkak egin zituzten eta Repsol %3,76 igo zen gasolioa merkatzea erabaki duen arren. Bankuek ere irabazien olatua hartuta, gorakadak izan zituzten.

DATUA

HSBC Hong Kongeko bankuak, Gescartera dela-eta, kontu ezkutua dituela esatearekin batera, Rodrigo Ratorren gainera Damocles ezpata gertuago dago. Ratorren batera, Ybarra BBVAordezkatzeko karta guztiak zituen Francisco Gonzalezena aukerak ere agortuz doaz.

Bilboko 2000 indizea

Diferentzia **+%0,94** | Azken indizea **1.386,04** | Aurreko indizea **1.373,20**



Beste indizeak

New York (Dow Jones)	9.5004,35 (+%0,44)
Tokio (Nikkei)	10.795,16 (+%0,78)
Madril (IBEX-35)	7.958,30 (+%1,00)
Paris (CAC-40)	4.478,63 (+%2,29)
Londres (FTSE 100)	5.188,60 (+%2,01)
Frankfurt (DAX)	4.807,86 (+%1,96)
Milano (Mibtel)	22.370 (+%2,33)

* Egundira arte

Dibisen merkatua

Pezeta	166,386
Libera	6,55
Dolarra (EEBB)	0,8911
Libra Esterlina	0,6234
100 Yen (Japonia)	1,0925